

2008ko hirugarren hiruhilekoan, ezkontza zibil gehiago izan ziren, proportzioan, aurreko urteko aldi berean baino

2008ko uztail, abuztu eta irailean 2.943 ezkontza izan ziren, aurreko urteko aldi berean baino %2,6 gutxiago

2008ko hirugarren hiruhilekoan, ezkontza zibilak gehitu egin ziren aurreko urteko aldi beraren aldean, %4 gehiago pasa; guztien %46,6 izan ziren, Eustaten datuen arabera. Ehuneko hau 2008ko bigarren hiruhilekokoaren azpitik dago, orduan ezkontza zibilak %53,4 izan baitziren.

Eustaten datuen arabera, 2008ko uztail, abuztu eta irailean 2.943 ezkontza egin ziren Euskal AEn; aurreko urteko hiruhileko beraren aldean kopurua %2,6 gutxitu da. Lurralde historikoei begiratuz gero, arabarrek 376 ezkontza egin zituzten, gipuzkoarrek 921 eta bizkaitarrek 1.543. Euskal AEtik kanpo biziko direnen kasuan, ezkontzak 103 izan ziren.

Uztaila da ezkontzeko hilabeterik gustukoena

Uztailan egin zen ezkontzarik gehien (1.213), gero irailean (1.188). Bestalde, aurrekoetan bezala, ezkontzarik gutxien (542) izan zituen udako hilabetea abuztua izan zen. Aurreko urteko hil beraren aldean %7,7 gehiago, halere.


2008ko hirugarren hiruhileko horretako 2.943 ezkontzetan, bizilekua Euskal AEn duten 2.853 gizonetzko eta 2.879 emakumezko ezkondu ziren. Horietatik 2.658 senarrentzat (%93,2), lehen ezkontza izan zen; 8 alargun eta 187 dibortziatu berriro ezkondu ziren. Emakumeen lehenengo ezkontzen ehunekoa gizonenaren antzekoa izan zen: aurretik ezkongabeak ziren emakumeak 2.701 (%93,8) izan ziren; alargunak, 4; eta dibortziatuak, 174.

Ezkontideek eztei-egunean zuten adinari erreparatuta, senarren artean, %73,1ek 30 urtetik gora zituzten; emazteen artean, berriz, %59,4k. Azken portzentaje hori 2007ko aldi berekoaren (%54,9) gainetik dago; senarren kasuan aldaketarik ez.

	2008ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2008ko 2. hiruhilekoa)		Aurreko urteko (2007ko 3. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	2.943	100,0	3.029	100,0	3.022	100,0
Kanonikoak	1.572	53,4	1.411	46,6	1.736	57,4
Zibilak	1.371	46,6	1.618	53,4	1.286	42,6
SENARGAIK	2.853	100,0	2.946	100,0	2.934	100,0
Ezkongabeak	2.658	93,2	2.719	92,3	2.755	93,9
Alargunak	8	0,3	15	0,5	12	0,4
Dibortziatuak	187	6,6	212	7,2	167	5,7
EMAZTEGAIK	2.879	100,0	2.959	100,0	2.983	100,0
Ezkongabeak	2.701	93,8	2.750	92,9	2.780	93,2
Alargunak	4	0,1	12	0,4	11	0,4
Dibortziatuak	174	6,0	197	6,7	192	6,4

Iturria: EUSTAT

1.grafikoa: Ezkontzen hilez hileko mugimendua



Oinarria 100 = b.b.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

+Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es